

## **AKTA**

### **Udalaren Ohiko Osoko Bilkura**

**ORGANOA:** Udalbatza  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2015-11-26 (11)  
**ORDUA:** 19:00 – 20:05  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Juan Jose Txurruka Txurruka (EH BILDU)

**Zinegotziak:** Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)  
Joseba Iraolagoitia Martinez (EH BILDU)  
Isabel Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)  
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ/PNV)  
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ/PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementería Otxandio

#### **AZTERGAIK:**

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Udalaren irudi korporatiboa onartzea.
- 3.- Udal hilerriak arautzeko ordenantzari hasierako onespina ematea eta lurperatzaile lanpostua sortzea Udaleko lanpostuen zerrendan.
- 4.- Kreditu aldaketak.
- 5.- Zinegotzien galderak.
  - 5.1.- *Bandalismoa.*
  - 5.2.- *Negua heltzen denerako protokoloa.*
  - 5.3.- *Argia baserrietan.*
  - 5.4.- *Euskararen nazioarteko eguna.*

***Gai zerrendatik aparte tratatutako gaiak:***

6.- 2012ko urtean atxikitako aparteko ordainsariaren zatia bueltatzea eta produkzio osagarria ordaintzea.

7.- Alkatearen ordezkoa.

## 1.- AURREKO AKTA ONARTZEA.

5204 – 2015/104 KODEA

Alkateak hartu du hitza eta, lehenengo eta behin, Iratxe Lasa Aranari zorionak eman dizkio Udalbatza osoaren izenean ama izan berri delako, aktan jasota gera dadin.

Jarraian, Udalbatzak 2015eko urriaren 20ko bilkuraren akta onartu du aho batez, baina EAJko udal taldeak esan du Ainara Gandiaga Longartek udako udalekuen inguruan adierazi zuena zehaztea nahi zuela. Hark esan zuen fakturaren zenbatekoa kontzeptuka bananduta nahi zuela, horixe berori esan zuela dio eta, aktan jaso ez zenez, gaurkoan jasotzea nahi duela.

Hala ere, eta aurreko akta onartzeko erabakia izango zena gorabehera, eta batzarra amaitu arte zain egon beharrean, hainbat zinegotziren artean baina gehien bat Ainara Gandiaga Longarteren eta Josune Baskaran Etxeberriaren artean egon den eztabaida jaso da, labur-labur bada ere, akta honetan. Hala, Ainara Gandiaga Longartek uste du ez dela nahikoa udako udalekuen inguruan eman zaion dokumentazioa. Gehien bat fakturak ez daudelako kontzeptuka bananduta eta, aparte, ez ei dago ados hezitzaileak kontratatzeke jarraitu ziren irizpideekin. Bere esanetan gurasoek hala nahi izatea ezin du irizpide izan eta, gaineratu du, ez dagoela konforme espedientean jasotako puntuazioarekin. Hau da, hezitzaile izateko apuntatu zirenei emandako puntuazioarekin.

Josune Baskaran Etxeberriak erantzun dio gaur-gaurkoz, zerbitzua emanda dagoenean eta TC-ak eta abar eskatu zaizkionean, zerbitzua eman duen enpresari ezin zaiola gehiago eskatu. Fakturak kontzeptu orokorra jasotzen dute, emandako zerbitzua bera delako kontzeptua. Hauek gaiok aurreko legealdiko udaleko kide guztien artean adostu zirela esan du, EAJko udal taldea ere tartean zela. Egungo zinegotziek honen gainean ezer ez jakitea ulertzen duela, gehitu du, baina akats bat deritzola aurrekoek informazioa ez transmititu izanari. Edozein kasutan, adierazi du datorren urterako kontratazioa prestatzen hasita dagoela eta baldintzen orria prestatutakoan pasako diela prozesua elkarrekin eta denon adostasunez egitea nahiko lukeelako, denen gustukoa izan dadin.

Ainara Gandiagak behin eta berriro esan dio fakturak bananduta egon behar dutela, eta berak ere, etxeko enpresako fakturazioarekin arduratzen zenean, zehatz eta mehatz egiten zuela. Luis Mari Malaxetxebarria Elordiren esanetan ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegia ostera ere baletor informazio eske, eman egin beharko zitzaion. Legez, gainera, dokumentazio hori urtebetez eskuragarri egon behar duela esan du. Iratxe Lasa Aranak erantzun die berak faktura asko ikusi izan dituela holako zerbitzuenak eta berbagai dugun enpresak egindako moduan egin ohi direla. Hau da, kontzeptu orokorraren barruan pertsonalaren eta material eta abarren gastuak sartuta. Jakinaren gainean berba egiten duela esan du, askotan ikusi izan dituelako holako fakturak, eta horrela egin ohi dela, gehiago zehaztu barik. Andoni Malaxetxebarria Kalzakortak gaiarekin behingoz amaitzea eskatu du, asuntoari buelta larregi ematen ari zaiola iritzita.

## 2.- UDALAREN IRUDI KORPORATIBOA ONARTZEA.

1213 – 2015/168 KODEA

Badira urte batzuk udalek irudi korporatibo modernoak eta bereizleak erabiltzen hasi direla, garaiotako eboluzioarekin bat etorritik, Udala eta bere aktibitatea identifikatzeko balio duten idatzi, akta eta dokumentu orokorretako goiburuetan erabili izandako armarren lekua hartu dutenak.

Pixkanaka-pixkanaka, gure inguruko tokiko erakunde gehienak – batik bat tamaina handienekoak – irudi, logo, trazu, etab. sortu dituzte. Kasuan kasu, irudion sinbologia lotuta egon ohi da udalerriarekin eta identifikatzeko balio du ez bakarrik udalaren dokumentuak, baizik eta haren jarduerari erantsitako beste edozein adierazpen grafiko ere bai, hala nola: eraikinak, informazio panelak, sare sozialetako eta web orriko irudiak, eta abar.

Markina-Xemeingo Udalak Goikoportaleko iturriaren erliebearen irudia hartu du sinbolo bereizle eta identifikagarri gisa. Aipatutako irudia poliki-poliki udal jarduera guztietara zabaldu da eta egunerokotasunean naturaltasun osoz integratu da. Hala, bada, ematen du lortu dela berori sortu eta zabaltzea pentsatu zenean bete nahi zen lehen helburua: herritarren onarpen maila aztertzea. Badirudi balio duela udalaren jardueraren ikur lez erabiltzeko. Horrek, baina, eskatzen du irizpideak bateratzea. Ez horrenbeste irudiaren beraren gaineko irizpideak, baizik eta koloreak, tonalidadeen paleta, letra tipoa, eta abar dira lotu beharrekoak, eta hori dena Udalak onartu behar du.

Gaur Udalari erakutsi zaion irudia, dagokion informazio batzordeak tratatua izan da eta onartu eta ezartzearen aldeko irizpena jaso du. Alabaina, Andoni Malaxetxebarriak esan du irudiarekin berarekin ados egon arren bere taldeak badituela zalantza batzuk, eta bat da diseinuaren egilea zein izan den. Alkateak erantzun dio bera dela. Berak sortu duela irudia. Barreak entzun dira, galdetzeko moduak eta erantzuteko moduak eragindakoak. Alexander Aretxabaleta Egiak aitortu du berak horixe pentsatzen zuela. Alegia, irudiaren diseinatzailea Juanjo bera zela. Barreak entzun dira berriro, komentarioaren tonuagatik. Eztabaida bat sortu da ondoren, gainerako udalerrietako irudi korporatiboaren eboluzioaren inguruan, herriko harrarria zertarako den...

Erabili beharreko irudi korporatiboaren gidaliburu idatziak zehatz eta mehatz azaltzen du zein aplikazio eta euskarriri egokitu dakioken, eta zelan erabili behar den. Hau da, irizpideak ezartzen ditu eta Markina-Xemeingo Udalaren irudi korporatiboa erabili beharra izan dezakeen edozeinentzako argibideak ematen ditu.

Azaldutako hori guztia aintzat hartuta, Udalak Markina-Xemeingo Udalaren irudi korporatibo berria onartzea erabaki du aho batez.

### **3.- UDAL HILERRIAK ARAUTZEKO ORDENANTZARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA ETA LURPERATZAILE LANPOSTUA SORTZEA UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDAN.**

3226 – 2015/39 KODEA

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, hauxe dio 26. artikuluan:

*“Udalerriek bere kasa edo elkaturik zerbitzu hauek bete beharko dituzte, nolana ere::*

*a) Udalerrri guztietan: argiteria, hilerria, hondakin-bilketaz, kale-bideen garbiketa, edateko uraren etxeetako hornidura, estolderia, biztanleguneetarako irispideak, herri barruko bideen zoladura eta janariaren eta edariaren kontrola”*

Kontua da, Markina-Xemeinen erakunde bat dagoela duela mendeetatik irauten duena, eta horren arabera, Jemeingo kanposantua hiru aldeko batzorde batek arautu izan du, honako hauek osatu izan dutena: garaiko Markinako eta Jemeingo ordezkariak eta Eliza Katolikoak. Gaur egun ere batzorde batek kudeatzen du zerbitzua, eta kide bik osatzen dute batzorde hori: Markina-Xemeingo Alkateak eta Andre Mariaren Zeruratzearen elizako parrokoak. Lurperatzeen kudeaketa Alkateak berak egiten dihardu eta, apurka-apurka lurperatzeen erregistroa ipini du martxan udaletxean, sepulturen zerrenda antolatu du, eta abar. Osoko bilkurako gaiak aztertzeko bildutako informazio batzordeari proposatu dio legez Udalari dagokion eskumena Udalak zuzenean beregain hartzea, eta erabakia osoko bilkura honetan hartzea.

Informazio batzordeak, zerbitzua derrigorrez eman behar hori Udalak bere gain hartzearen aldeko irizpena eman du eta, gainera, Udalari proposatzea udal kanposantua (Xemeingoa, Barinagakoa eta Larruskaingoa) arautuko dituen ordenantza onartu dezala, eta udal lanpostuen zerrendan lurperatzaile lanpostua sortu dezala.

Hala, ordenantza osoko bilkurara ekarri da Udalak onartzeko. Udal ordenantzak onartzeko, prozedura hau bete behar da:

**a.** Alkatearen probidentzia bidez hasten da espedientea eta Ordenantza egiteko eskatzen zaio gaiaren arabera arloko zerbitzu eskudunei.

**b.** Ordenantzaren proiektua egin eta jasotakoan, Osoko Bilkurari dagokio hasierako onarpena ematea (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 artikulua), Informazio Batzordearen alde aurretiko aldeko irizpena izanda. Onarpenaren erabakia jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez gutxienez, interesdunek egoki deritzeten erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Hasierako onarpenaren erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

**c.** Jendaurreko informazio-aldia amaitutakoan, erreklamazio edo iradokizunik egon bada erabaki egin beharko dira, eta Ordenantzaren testuari gehituko zaizkio alegazioen ondoriozko aldaketak. Behin betiko onarpena osoko bilkurari dagokio. Informazio-aldian hasierako onarpenaren aurkako alegaziorik aurkeztu ezean, ordea, artean behin-behinekoa izandako onarpena behin betikotzat emango da, eta idazkariak ziurtagiri bat egingo du hasierako onespina behin betikoa bihurtu izana egiaztatzen.

**d.** Ordenantzaren behin betiko onarpenaren erabakia (*esanbidezkoa zein isilbidezkoa*) eta berorren testu osoa iragarki taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira, hala xedatzen baitu 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan.

Beste alde batetik gogoan izan behar da lanpostuen zerrendak direla langileak zerbitzuen arabera antolatzeko erabili ohi den tresna tekniko. Lanpostu bakoitzak bere eginkizun eta egitekoak betetzeko eskakizunak ditu, eta langile publikoen oinarritzko estatutuaren 69. artikulua dioenez, herri administrazioek giza baliabideak antolatzeko planak onar ditzakete. Horretarako, Udalak badu bere lanpostuen zerrenda eta lurperatzailearena hortxe sartu beharko zen.

Horrez gain, kontuan izan behar da Estatuko Aurrekontuen Legearen 20. artikulua xedatutakoaren arabera gehienezko % 50eko muga orokorra ezarrita dagoela lanpostu hutsak betetzeko eta, horrenbestez, ezingo zen lanpostu hori behin betiko bete. Alabaina, badago bitarteko funtzionarioak kontratatzerik aparte kasuetan edota presakoak edo gerora ezin diren beharrezko erantzuteko eta oinarritzko zerbitzu publikoak eman beharri aurre egiteko. Bistan da hizpide dugun kasua, kanposantua, horretarako bat dela, eta, horrenbestez, duela hogeitazero kanposantuko batzordearen esanetara lurperatzaile beharrak egin izan dituen langileak berak jarraitzea proposatu da baina bitarteko funtzionario bihurtuta behin Udalak zerbitzua bere gain hartutakoan. Hau da, 2016ko urtarrilaren 1etik.

Hori horrela, udal lurperatzaile lanpostu berriari dagokion fitxa aurkeztu da Udalak onartzeko. Esandako moduan, zerbitzua orain arte Kanposantuko Batzordearentzat lan egin izan duen langileak berak beteko du lanpostua bitarteko funtzionario lez. Lanpostu berriari dagokion lanpostu mailako osagarria 10a izango da, eta gainerako peoiek duten berariazko osagarria eta taldea. Luis Mari Malaxetxebarria Elordiren ustez, lanaldi osoa betetzeko beste lan batzuk ere agindu beharko litzaizkioke eta egiten dituen kontrolatu. Bere esanetan, gainera, Udalarena izanda Elizak beretzat duen kanposantu zatia jabetzaren erregistroan inskribatu beharko litzateke. Bestela, dirua alferrik gastatzea litzateke, Udalak jabetza berea denik ere ez badaki ez daukalako zertan ordaindu. Horrez gain, hilerriko erantzukizun zibileko udal aseguruaren gaia ere aitatu da, hilobi pribatuekin zer gertatzen den, etab. Alkateak dio hilerrian gertatzen diren ezbeharren erantzukizun zibila Udalaren aseguru orokorrean sartuta dagoela eta jabetzakoak diren hilobiek euren aseguru eduki behar dutela aparte.

Azaldutako guztia aztertu eta gero, Udalbatzak haxe erabaki du aho batez:

- 1) Udal hilerrietako zerbitzuaren izaera publikoko aitorten zehatza eta formala onartzea.
- 2) Xemeingo, Barinagako eta Larruskaingo udal hilerriak arautzen dituen Ordenantza hasiera batez onartzea, eta behin betiko onartzeko egin beharreko gestioak egitea.
- 3) Udal lurperatzailearen lanpostua gaur bertan udaleko Lanpostuen Zerrendan sartzea, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eta 2016 ekitaldirako aurrekontuaren onarpen iragarkiarekin batera argitaratzea.
- 4) Udal lurperatzailearen postua jabetzan bete bitartean, orain arte ere lan hori egiten izan duenak berak jarraituko du eta bere lanaldia osatzeko Alkateak bestelako lan batzuk emango dizkio. Erabaki hau espedienteen ardura duten udal zerbitzuei jakinaraziko zaie, bitarteko funtzionario karguaz jabetzeko akta egin dezaten, 2016ko urtarrilaren 1eko eraginez.

#### 4.- **KREDITU ALDAKETAK.**

3105 – 2015/35 KODEA

14. eta 17. kreditu aldaketak aditzera eman dira eta 13., 15. eta 16. kreditu aldaketak osoko oniritzira jarri dira:

\* 13. kreditu aldaketa: aldaketa honen berri eman zaio Ogasun Batzordeari. 2300 48000 partidatik 1660 22799 partidara 4.128,00 euroko transferentzia egitean datza, Agustin Deuna kaleko saneamenduan obrak egiteko (kultur taldeen lokalak).

\* 14. kreditu-aldaketa: alkate dekretuz onartu da, Ogasun batzordea aldeko irizpidea eman eta gero. 2300 48000 partidatik 4.000,00 euro eta 2301 49000 partidatik 7.000,00 euro 3380 22699 jaietako partidara transferentzia egitean datza (Gabonetako ekintzen programazioa).

\* 15. kreditu-aldaketa: aldaketa honen berri eman zaio Ogasun batzordeari. 011 33201 partidatik (ekitaldiaren hasieran aurreratutako amortizazioaren ondorioz aurrekontuan sartutako amortizazio eta interesen zati bat aurreztu da) 3410 48100 partidara transferentzia egitean datza, kirolaren promoziorako.

\* 16. kreditu-aldaketa: aldaketa honen berri Ogasun batzordeari eman zaio. 4910 780 partidatik 5.000,00 euro eta 1620 623 partidatik 5.000,00 euro 3373 62302 partidara transferentzia egitea datza, jolas gune berriaren partidara.

\* 17. kreditu-aldaketa: alkate dekretuz onartu da. Energiaren Euskal Erakundeak (EEE/EVE) emandako 9.736,00 euroko diru-laguntza gehitzean datza, energia eraginkortasuneko inbertsiorako.

Azaldutako guztia aztertu eta gero, Udalbatzak hauxe erabaki du aho batez:

1) 13., 15. eta 16. kreditu-aldaketak onartzea eta alkate dekretuz onartutako 14. eta 17. kreditu-aldaketak kontuan hartzea.

2) Erabaki honen berri ematea Ekonomia arloari.

#### 5.- **ZINEGOTZIEN GALDERAK.**

5.1.- Bandalismoa.

Andoni Malaxetxebarria Kalzakortak aditzera eman du azken egunetan herrian jasan izan diren bandalismo ekintzen aurrean Udalak aitorten bateratu bat egitea interesgarria izango litzatekeela, gaitzespen gisa. Alkateak erantzun dio jakinda nor izan den, adibidez, Bekobenta eskolan gertatutako kasua, beste modu eraginkor batean jokatu ahal dela. Berak aipatu duen kasuan, gurasoekin hitz egin dela jakinarazi da. Horrez gain, orokorrean bandalismoaren inguruan, egia da gauza asko goizaldeko orduetan gertatzen direla eta ez da beste bati errua botatzea baina tabernariekin bilera bat egin dela esan behar da; izan ere, horietako batzuk baimenduta duten ordutegia ez dute errespetatzen eta denbora gehiagoz izaten dute taberna zabalik. Ertzaintzak, establezimendu bakoitzak daukan kategorია eta horren arabera ordutegia eskatu ditu eta horretan ari da. Izan ere, ordutegiak pixka bat mugatuz gero arazoa ere zeozer hobetu daitekeela uste da. Luis Mari Malaxetxebarria Elordik galdetu du kamaren gaiak nola funtzionatzen duen, hau da, irudiak edonork ikusi ahal dituen edo ez, ekintza bandalikoaren egilea nor den jakiteko aukera izateko. Iratxe Lasa Aranak dio kamerak ezin direla edozein tokira zuzenduta egon; adibidez, sarrerako atera zuzenduta egon ahal direla baina ez kalera, orokorrean. Gaia tratatu eta gero, hurrengo puntura pasa da.

#### 5.2.- *Negua iritsi aurreko protokoloa*

Luis Mari Malaxetxebarria Elordik negua datorrela eta elurra egiten duenerako zelan jardun protokolorik martxan jarri den jakin nahi du. Alkateak erantzun dio asteartean Hirigintzako bilera egingo dela eta gai hau bertan tratatuko dela. Luis Mari Malaxetxebarria Elordik azpimarratu du Hirigintzan zehaztutako gai bat, hain zuzen, Barinagako bidearen garbiketa zerbitzu buruak zerbait egitekotan gelditu zela eta egin den edo ez jakin nahi du. Alkateak komentatu du auzo batzarrak egiten hasi direla, aste honetan Barinagan, Santutxun eta beste auzo batean, eta Luis Mari Malaxetxebarria Elordiri bertaratzeko gonbita egiten dio. Horrez gain, pasa den astean Meaben, Larruskainen, etab. egon zirela jakinarazi du. Bilera horien helburua auzotarrek dituzten eskaerak jasotzea da. Normalean egiten diren eskariak antzekoak izan ohi dira: bideak, etab. Esan beharra dago, auzotar batzuek euren esker ona adierazi dutela eskatutakoari erantzuna ematearren. Luis Mari Malaxetxebarria Elordik komentatu du biondak falta direla, ez daki Hirigintzan gai hori jorratuko den ala ez, baina falta direla argi utzi nahi du.

#### 5.3.- *Baserrietan argia*

Andoni Malaxetxebarria Elordik udalbatzako kideei galdetu die zer uste duten baserri bakoitzari argiteri publikoa jartzeari buruz. Alkateak erantzun du ez duela bideragarri ikusten. Herrian 300 baserri daude. Alexander Aretxabaleta Egiak dio baserri bakoitzari honenbesteko bat dakiokoela portaleko argiaren gastu gisa. Zinegotzien aldetik balorazio ezberdinak azaldu dira; batetik, Malaxetxebarriak adierazi duen bezala, baserriaren sarreran argia jartzeak segurtasun aldetik begiratuta puntu garrantzitsua izango zen batzuen esanetan. Bestetik, Luis Mari Malaxetxebarria Elordik bere baserrian gertatutakoaren berri eman du, hala nola, zarata entzun zuenean argia piztu zuela eta lapurrak alde egin zutela, eta horregatik argia oso garrantzitsua dela dio lapurrak uxatzeko orduan. Aitor Odiaga Garatek, ostera, mantenua eta kostua Udalaren kontura izatea ezin helduzkoa dela nabarmendu du. Josune Baskaran Etxeberriak gehitu du, baserrietan bizi direnentzat ez dela beraien lehentasunetako bat, baserritarrekin hitz egin baita eta, egia esan, euren artean ez dago adostasunik. Aitor Odiaga Garatek uste du du auzuneetako erdigunean egon behar den argia publikoa izan behar dela eta baserri bakoitzari jartzeko argia beste gai bat dela. Gai hau Hirigintzan jorratzekoa dela dio. Ainara Gandiaga Longartek dio bera gusturago egongo zela larrialdiren bat dagoenean anbulantziek baserrietako bideak errazago aurkituko balituzte eta horretarako programa bat ezartzea ondo etorriko zela, argiaren gaia baino. Andoni Malaxetxebarria Kalzakortak zehaztu du berak beste zinegotzien iritzia jakin nahi izan duela, besterik ez. Gaia horretan utzi da, bilera gehiago ez luzatzeko.

#### 5.4.- *Euskararen Nazioarteko Eguna*

Iratxe Lasa Aranak aitatu du abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, ostegunerako eta ostiralerako herrian programa oso interesgarria antolatu dela. Aipatutako ekintzak

arrakastatsu izateko, antolatutako ekintzetan parte hartzeko gonbita egin du. Batez ere argi utzi nahi izan du herriko hainbat taldek antolatu dutela horko eguneko egitaraua.

***GAI ORDENETIK APARTE TRATATUTAKO GAIAK.***

**6.- 2012 URTEAN ATXIKITAKO APARTEKO ORDAINSARIAREN ZATIA BUELTATZEA ETA PRODUKZIO OSAGARRIA ORDAINTZEA**

2315 – 2015/1 KODEA

Estatuko arautegiaren azken onarpenek 2012 urtean atxikitako ordainsariaren zati bat bueltatzea ahalbidetzen dute, eta ordezkari sindikalekin hitz egin ondoren eta gai hau Tokiko Gobernu-Batzarrean tratatu ostean 2012 urtean atxikitako kantitatea 2016ko urtarrilean itzultzea proposatu da. Gainera, dagokion dokumentazioan azaltzen denaren arabera, produkzio osagarria ordaintzea proposatu da, ordainketa bakar batean eta urtearen azken hilabetean. Azkenik, 2016 urteko aparteko ordainsariak ekainean eta abenduan ordaintzea erabaki da.

Udalbatzak goian azalduko proposamenak aho batez onartu eta ontzat eman ditu.

**7.- ALKATEAREN ORDEZKAPENA**

1101 – 2015/23 – KODEA

Alkateak adierazi du datozen egunetan ebakuntza kirurgiko bat egin behar diotela eta, ondorioz, bere ordezkoa izendatu behar dela. Oraindik ez daki zehatz ebakuntza zein egunetan egingo dioten baina Mankomunitaterako udal ordezkaria izendatzeko beharrezkoa denez osoko bilkurak aldaketa hori onartzea, alkatearen lekuan organo horren bileretara joateko Josune Baskaran Etxeberria izendatu da. Izendapena Lea-Artibaiko Mankomunitateari jakinarazi beharko zaio.

Udalbatzak aho batez onartu du izendapena.



ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 20:05EAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,  
Juan Jose Txurruka Txurruka

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,  
Iratxe Rementeria Otxandio